

POLENTZI GEZALA



Egilea: Joxe Juan Ugalde Ordoki

Argitaratzailea: Lezoko Udala

Itzulpenak:

Euskara-gaztelania: Garazi Ugalde Pikabea

Euskara-frantsesa: Peio Heguy

DVD-a: Patxi Itxaurrendieta Aizpurua

Maketazioa: Gertu Komunikaziobide, Oñati

Inprimategi: Gertu Komunikaziobide, Oñati

L. G.: ?????



Lezoko Unibertsitateko Udala

Annie, à toi





Polentzi Isidro Ansorena maisuarekin

Aurkibidea

Hitzaurrea: Imanol eta Iñigo Esnaola. <i>Zergatik Polen?</i>	11
Hitzaurrea. Jose Ignazio Ansorena. <i>Polentzi txistulari betea</i>	13
Atarikoak. Egileak	21
Polentzi Gezala: txistuaz mundua liluratu duen lezoarra	29
- Haurtzaroa, erbestea eta gaztaroa	31
- Etorki.....	51
- Oldarra	85
- Bi kide: Gene Yurre eta Filipe Oihanburu	107
- Réveil Basco Béarnais	131
- Mariemma	141
- Beste hainbat urrats.....	147
- Ballet L´Ensemble Populaire de Paris.....	149
- Carmen Amaya.....	149
- Manolita eta Rafael Aguilar	151
- Izarra Dantza Taldea.....	155
- Brigitte Bardot.....	157
- Bilbao.....	159
Pierre eta Jean Marie semeen ondoan.....	163
Paris-Coarraze	183
Patxi Intxaurrendieta: <i>Polentzi Gezala eta Tomas Garbizu , txistu eta organorako musikaren uztardura</i>	203
Estanis Karrera: Lezoko Txistulari Taldeko zuzendaria	219
Daniel Moërs: <i>le txistu une maladie contagieuse</i>	227
Polentzi Gezalaren diskografia	237
Sariak eta omenaldiak.....	253
Bibliografia, dokumentazioa eta argazkiak.....	265
Eskerrak.....	267

“Una vez perdido el territorio vasco (...) pensamos que teníamos que enviar por todo el mundo un mensaje de lo que era nuestro pueblo y nuestra lucha (...) la creación de un Coro Nacional Vasco con el cometido de que el mensaje vasco en calidad artística fuera por todo el mundo. (...) Aquello fue un refuerzo a la acción política que paralelamente llevábamos para explicar nuestra causa”

Telesforo Monzon

Anasagasti, I (2008) Lláname Telesforo. Txalaparta Argitaletxea (Tafalla). 68-69 orrialdeak.

Zergatik, Polen?

Zergatik saiatu zinen horren gogotsu txistularitzan? Zer arraio dela eta jaso nahi zenituen Paris, Londres edo New Yorkeko areto nagusietako entzuleen txaloak? Ai gajoa, begirada urrun (urrunegi?) jarri zenuen, eta bidean gorriak pasa. Zergatik tematu txistuarekin artista unibertsala izaten? Ez al zinen jabetu gerra galdu genuela (zeure familia bai, gero!)? Atzean utzi behar ziren aberria eta bere aberiak. Baina zeuk sortzen ikusitako lehen nazio instituzioen leloari jarraitu, “asmoz eta jakitez”, “ekin eta jarrai” (gerra aurrean sortutako Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiaren leloak, hurrenez hurren).

Ez al zen errazagoa *bandurria* joz, *lagarterana* eta *fallera* artean ibiltzea? “30 años de paz-eko” ekitaldietan zeuk bezalakoak falta ziren, ederki sarituko zintuzketen. Ai, Polen, zeuk ere, herri honetako hainbat seme-alabaren bideari lotu, euskaldun, libre eta artista bizi nahi. Ez zen nolana hikoia zeure “apeta”.

Baina, lagun, berriro galdetu behar dizugu, zergatik saiatu euskal kultura, txistularitza eta Euskal Herria nazioartean ezagutzera ematen? Gerra galdu genuela! Nazioartek bizkarra eman zigula! Euskal Herriaren hileta elizkizunak eginak zirela! Zergatik, Polen, zergatik jarraitu munduan euskaldunontzat leku bat egiten?

Galdera erretorikoak dira, ez gaituzu inozoak. Egia esan, ongi ulertzen zaitugu. Etxetik jaso zenuen ondare politiko eta kulturala ez ziren nolana hikoak izan. Heriotzara kondenatutako herri baten patua aldatu nahi zuen belaunaldia ezagutu zenuen. Familiaren konpromiso politiko eta musikala, arrebaren aktibismo kulturala, euskal pizkundearekin konprometititako herriko poeta, musikari eta margolariak... Eta Hegoaldea batu nahi zuen Lizarrako Estatutua, Lehen Jaurlaritza Gudaroste eta guzti, eta euskal herritar izateagatik akabatutakoak, eta “dana emon biar jako” ezpainenetan hartuta joan eta itzuli ez ziren mendigoxaliak... ilusio eta konpromiso handiko garaiak. Baina baita oinaze handikoak ere. Frankisten sartzea herrian, frankisten jazarpena eta exilioa (Bizkaia, Lapurdi, Nafarroa Beherea...) eta ondoren urtetako desterrua, familia sakabanatua. Gerra, gerra madarikatua eta madarikatuak herri hau jazartzera etorri diren indar guztiak!

Honaino iritsita lagun, onariez gabe esan behar dizuguna, abertzaletasunak egin zintuen txistulari unibertsal. Hori gabe zeure grina bestelakoa zatekeen. Zurikerian dabilen askori esan dizugunak kirioak dantzan jarriko dizkio, baina zeuk badakizu eta geuk ere bai, abertzaletasunik gabe herri honek jai zuen aspaldi. Abertzaletasunean dago behar dugun txinparta, zugar ere nabari da. Nondik atera, bestela, indarrak, Lezon bertan gure ondarea Peter Pan-ekin berdindu nahi dutenei izkin egiteko?

Barka Polen, konfiantza gehiegirekin hitz egin badizugu, baina gure izeba Begoñe eta zuen arreba Mireni esker ikasi dugu zuen ibilerez eta garai hartako abertzaletasunaz. Horregatik, zer esan zeuen memoriaren aintzinean... Hasitako bideari jarraituko diogu, eta ea laster Euskal Herriko Musika Akademia Nagusiak, bere sortze batzarra egitea lortzen dugun.

Iñigo Esnaola
Imanol Esnaola
Kultura arloko zinegotzia eta zinegotzi izandakoa.

POLENTZI, TXISTULARI BATEA

Jose Ignazio Ansorena



olentzi Gezala urtetan aurreratua ezagutu nuen, laurogei urte zituela edo, Lezon bere azken diskoa aurkeztu zen egunean. Elkarri agur txiki bat egiteko besterako ez genuen aukerarik izan. Alegia, pertsonalki ez nuen ezagutzen, baina txistulari artista betearen ezagutza askozaz lehenagotik banuen.

Umea nintzenean, etxean irratia jarrita, Polentziren txistuak giro berezia sortzen zuen. Orduan txistua euskalduntasun seinale baitzen eta gurean zerbait gehiago ere bai. Behin baino gehiagotan gure gogoia kulunkatu egiten zen nota haien gainean.

Geroago, neroni ere aitona Isidroekin txistua ikasten hasi nintzenean, honek hainbat datu eman zizkidan Polentziri buruz. Berarekin ikasia zela eta hasieran kostatzen egin zitzaioala arrastoan sartzea. Betekizun horretarako —Isidrorentzat *arrastoan sartzea* neurri eta konpasaren jabetza hartzea zen— pieza bat bereziki sortu ziola, *Azterketaren* izeneko eta huraxe jo arazi ziola ikastaroko *azterketan* jakina.

Gerra aurreko txistularien alarde batean, jendeaurrera ateratzen zuten bakarreko gisan. Federico Cortoren *Baltz*-ean, badira bakarrekoak erakustaldia egiteko modu ahi uzten ikasle bat jendeaurrera ateratzen zedin. Ordurako arrastoan sartuta zegoen seinale.



Kresalako Dantzari taldea sortu zenean, 1968.ean, dantzari hasi nintzen bertan Gene Yurreren eskutik. Ni dantzari izaten tematua eta Gene —harrez geroztik maisu, lagun, adiskide eta auzoko izango nuen— txistulari izan behar nuela. Gure amarekin bat zetorren. Isidroren biloba nintzela, Ansorena deitura nuela, txistua heltzen edo *ukitzen* behintzat banekiela eta batez ere... dantzari taldeak txistularia behar zuela. Genek azkenean berea lortuta, behin eta berriz kontatzen zizkidan Polentzirekin bizitutakoak eta eredutzat jartzen zidan. Ni, baina, beste egur batekoa izan eta nahia-go izaten nuen taldearen epelean jotzea.

Behin txistulari aukera eginda nuelarik, zeuden kontzertu eta alarde guztietara joaten hasi nintzen. Haietan ohitura zen bazkalondoetan txistulariak banaka edo taldeetan zerbait jotzera ateratzea. Maiz han agertzen zirenak neurtzeko Polentzi zen

erregela eta erreferentzia. Denetarik entzuten zen. Aldeko asko zituen, grabazioak entzundakoan liluratu egiten zirenak.

Kontrakoak ere bazituen. Tranpa zegoela grabazioetan. Oraindik ere gogoan daukat Andoaingo alardearen bazkalondo batean nola hitza eman zigun txistulari zahar batek, berak frogatuta zeukala bere txistuarekin batera jotzen eta grabazioak *azkarragotuta* zeudela. Noski, azkarragotzerakoan tonua igo egiten zen eta horretan geratzen zen agirian kontua.

Gaztetxo ni, etxera joan eta aproba egin nuen. Egia zen. Aitonari kontatu nion, oraindik harrিতuta. Haren erantzuna: “*Baina zer axola dio? Disko bat da. Ondo entzuten al da?*”. Ni ere, lehenago Polentzi bezala, *arrastoan sartu ninduen* Isidro. Zuzeneko emanaldia ez baita grabazio baten berdina. Bakoitzak bere arau eta erregelak ditu. Eta horrelako mikrofonoa edo bestelako ekualizazioa erabiltzen den bezala, produktu ona ateratzearren bestelako bitartekoak ere jakin behar da usatzen.

Guk, urte haietan, oraindik ez genekien ezer grabazioen teknikari buruz. Gero-ago ikasi ahal izan dugu zerbait. Eta eguneko ikuspuntutik konturatzen gara Polentzi Gezalak grabatu zituen diskoekin (eta munduan barrena eman zituen emanaldiekin ere bai) mesede handia egin ziola txistuari, txistulariei baita euskaldun guztiei ere. Gure egurats eskastuan uste txiki bat sentitzen lagundu zigun, txistuak bazuela gozamina sortzeko aukera erakutsi eta zabaldu egin zuen. Besteak beste, grabazio oso onak prestatu zituelako. Ez bakarrik berari dagokionean. Txistuaren hotsa natural entzuten da, garbi, indartsu, zakarkeriarik gabe, erreberberazio maila egokiaz. Makina bat grabazio txar entzun behar izan dugu gerora askoz bitarteko modernoagoak erabiliz burututa. Horretan ere, asmatu egin zuen.

Garai haiek ez ziren euskal jendearentzat errazak eta Polentziren doinu haiek halako harrodura ekartzen ziguten. “*Gu ere zerbait bagara*“, xuxurlatzen zigun haren kantu ederrak. Txistu haren hots borobilak poza eta duintasuna sentitzen lagundu zigun urte gogor haietan.



Isidro Ansorena 1972ko abenduan zahartuta eta makaltxo zegoen. Hala ere, Donostiatik Bilboko *Coliseo Albia* antzokian antolatutako kontzertu berezi batera joateko nekea hartu nahi izan zuen. Merezki zion. Batetik Donostiako Easo Korua baitzen saio garrantzitsuena, bere seme Iñakik, gure aitak, zuzendua. Eta kontzertu hura Umbe Mendiko *La Casilla* umezurtzen eskola-etxearen aldekoa zen, non bere alaba Prantxiska Martiña, *Sor Martina*, baitzegoen mojen nagusi. Gainera, Easo Koruaren bi atalen artean beste saio bat zegoen iragarrita: Polentzi Gezala txistularia.

Hala ere, ezusteko ederra izan zuen kontzertu hartan. Maisu izan zuenari opatu nahi izan zion saio hura Polentzik. Ohiko erreperitorioaz gainera, inork gutxik eza gutzen zuen obra jo zuen bereziki eskainia: *Azaroko lore maite bat* izeneko kontrapasa. Gure aitona Isidro amona Kontxari, bere emazte izan zenari, gaztetan eskainitako obra labur ederra.

Txalo ugariak bildu zituen Polentzik egun hartan. Saioa amaituta, Isidro Anso-rena zegoen palkora besarkada ematera igo zenean, txaloak baino sari hobea ere jaso zuen: honen masailetan behera oraindik ere irristatzen ari ziren zirrarako malko gazi-
gozo batzuk.




Joxe Juan Ugaldek prestatutako biografia honetan irakurri ditut Polentzi ze-
nak errepikatzen omen zituen hitzak: “*Barruan ditudan guztiak esango banitu*”.
Ez dakit denak esan ote zituen. Baina bere txistu-danbolinak mezu mamitsu eta
gozagarriak utzi ditu. Hitzak ailegatzten ez direnetera iritsi baitziren bere doinuak.



Jose Ignazio Ansorena. *Judith Fernández*en argazkia.

POLENTZI, UN TXISTULARI COMPLETO

Jose Ignazio Ansorena

 nocí a Polentzi Gezala cuando ya era mayor, tendría unos ochenta años, el día de la presentación de su último disco en Lezo. Sólo tuvimos la ocasión de saludarnos brevemente; es decir, no lo conocía personalmente, pero tenía conocimiento de este txistulari y artista tan completo desde hacía mucho tiempo.

Durante mi infancia, con la radio encendida en casa, el txistu de Polentzi creaba una atmósfera especial. En aquel entonces el txistu era una característica vasca y en nuestra casa era incluso algo más. En ocasiones nuestras mentes se columpiaban sobre aquellas notas.

Más tarde, cuando yo mismo empecé a aprender a tocar el txistu con mi abuelo Isidro, él me habló de Polentzi. Me contó que había sido alumno suyo y que al principio le costaba *entrar en vereda*. Con este objetivo —para Isidro entrar en vereda significaba ser consciente de la medida y del compás— compuso una pieza llamada *Azterketa* (‘examen’ en euskera) expresamente para él y, naturalmente, se lo hizo tocar en el examen del curso.

En un alarde de txistularis anterior a guerra, lo sacó de solista ante el público. Le hizo tocar el *Baltz* de Federico Corto, una pieza que contiene variaciones con las que el solista puede lucirse. Al parecer el público se quedó boquiabierto al ver a Polentzi tan joven —tenía solamente quince años— y a su vez tan vivo y ágil. Isidro no permitía que un alumno actuara ante el público de cualquier forma. Esto quiere decir que para entonces ya había entrado en vereda.



Con la fundación del Grupo de Danza Kresala, en 1968, empecé a bailar en el grupo la mano de Gene Yurre. Yo estaba empeñado en ser bailarín y Gene —quien a partir de entonces sería mi profesor, amigo y vecino— en que tenía que ser txistulari. En eso estaba de acuerdo con mi madre. Me decía que era nieto de Isidro, que me apellidaba Ansorena, que al menos sabía coger el txistu y sobre todo... que el grupo de danza necesitaba un txistulari. Al final se salió con la suya. Gene me contaba repetidamente lo que vivió con Polentzi y me lo ponía a modo de ejemplo. Pero yo era astilla de otro palo y prefería tocar al amparo del grupo.

Cuando me decidí por el txistu empecé a ir a todos los conciertos y alardes que se presentaban. Después de la comida, era habitual sacar a los txistularis a tocar, tanto de solistas como en grupo. A menudo Polentzi era la regla y la referencia para medir a los que allí se reunían. Se oía de todo. Tenía muchos seguidores que se quedaban fascinados al escuchar sus grabaciones.

También tenía contrarios que opinaban que había trampa en las grabaciones. Todavía recuerdo que, después de la comida de un alarde de Andoain, un viejo txistulari nos prometió que él lo había comprobado tocando al mismo tiempo con su txistu y que las grabaciones estaban *aceleradas*.

Al parecer, al acelerarlas el tono subía y esto lo dejaba en evidencia.

Yo, jovencito, hice la prueba al llegar a casa. Era cierto. Se lo conté a mi abuelo, extrañado aún. Su respuesta: “*¿Pero qué más da? Es un disco. ¿Se oye bien?*”. Al igual que lo había hecho con Polentzi, Isidro me hizo *entrar en vereda*. De hecho, la actuación en directo no es lo mismo que una grabación. Cada uno tiene sus principios y sus reglas. Al igual que se hace uso de un micrófono o de la ecualización, también hay que saber utilizar otros recursos para lograr un buen producto.

Por aquel entonces, todavía no sabíamos nada sobre la técnica de grabación. Más tarde hemos podido aprender algo. Y desde la perspectiva de hoy en día nos damos cuenta de que Polentzi Gezala hizo una aportación considerable al txistu, a los txistularis y a todos los vascos con las grabaciones de sus discos (al igual que con las actuaciones que dio por el mundo). Nos ayudó a sentir una pequeña esperanza en nuestra agotada atmósfera. Mostró e hizo ver que se podía disfrutar con el txistu, entre otras cosas, porque había preparado muy buenas grabaciones. No solamente en cuanto a él. El sonido del txistu se presenta natural, nítido, fuerte, sin brusquedades, con un nivel de reverberación adecuado. Desde entonces hemos tenido que escuchar infinidad de malas grabaciones llevadas a cabo con medios mucho más modernos. También acertó en esto.

Aquella época no fue fácil para los vascos y las melodías de Polentzi nos proporcionaban cierto orgullo. “*Nosotros también somos algo*”, nos susurraba su admirable y completo canto. El sonido de su txistu nos ayudó a sentir alegría y dignidad durante aquellos duros años.



En diciembre de 1972 Isidro Ansorena se encontraba envejecido y débil. Sin embargo, quiso hacer el esfuerzo de trasladarse desde Donostia hasta el teatro *Coliseo Albia* de Bilbao para asistir a un concierto especial. Merecía la pena. Por un lado, la actuación principal era del Coro Easo de Donostia, dirigido por su hijo Iñaki, mi padre. Y por otro, aquel concierto se celebraba en favor de la escuela del orfanato *La Casilla* del monte Umbe donde su hija Prantxiska Martiña, *Sor Martina*, era monja superiora. Además, entre dos partes del concierto del coro Easo, se había anunciado otra actuación: la del txistulari Polentzi Gezala.

En el concierto recibió una gran sorpresa. Polentzi quiso dedicar la función al hombre que había sido su profesor. Además del repertorio habitual, tocó una obra poco conocida con una dedicación especial: el contrapás llamado *Azaroko lore maite bat*. Una obra breve pero hermosa que el abuelo Isidro le había dedicado a la abuela Kontxa, la que había sido su mujer, cuando eran jóvenes.

Polentzi recibió un gran aplauso aquel día. Una vez concluida la función subió al palco donde se encontraba Isidro Ansorena a darle un abrazo, y recibió algo más valioso que los propios aplausos: unas cuantas lágrimas agrídulces que aún resbalaban por sus mejillas, fruto de la emoción.



En esta biografía que ha preparado Joxe Juan Ugalde he leído unas palabras que Polentzi solía repetir: “*¡Si dijera todo lo que llevo dentro!*”. No sé si llegó a decir todo, pero su txistu y su tamboril han dejado mensajes profundos y placenteros. Precisamente, sus melodías llegaron hasta donde no llegan las palabras.

POLENTZI, UN TXISTULARI ACCOMPLI

Jose Ignazio Ansorena



e fis la connaissance de Polentzi Gezala alors qu'il avait atteint un âge avancé, autour de quatre-vingts ans. Le jour où il présenta son dernier disque à Lezo. Nous avions alors à peine eu le temps de nous saluer. Je ne le connaissais pas personnellement, mais je connaissais déjà le grand artiste txistulari (joueur de txistu) depuis bien longtemps.

Durant mon enfance, lorsque j'écoutais la radio à la maison, le txistu de Polentzi créait une ambiance particulière. À l'époque, le txistu était le symbole de la "basquitude" et chez nous, cela représentait plus encore. Les notes qu'il nous donnait à entendre nous ont émerveillés en maintes occasions.

Plus d'une fois, au cours des leçons de txistu que me dispensait mon grand-père Isidro, celui-ci se laissait aller à me parler de Polentzi. Qu'il avait appris à jouer avec lui et qu'il lui en avait coûté de rentrer dans le rang. Il lui avait composé un morceau spécialement pour cela –pour Isidro, rentrer dans le rang signifiait maîtriser la mesure—, morceau qu'il appela Azterketa (l'examen), et c'est précisément ce morceau qu'il lui fit jouer pour l'examen de fin d'année, bien entendu.

Au cours d'un Alarde (concert) de txistulari d'avant-guerre, il le fit se produire en tant que soliste. Le Baltz de Federico Corto comporte quelques changements permettant des solos et c'est précisément ces morceaux-là qu'il lui fit jouer. Le public resta bouche bée à la vue de ce Polentzi si jeune – il n'avait que quinze ans - mais si virtuose... Isidro ne laissait pas n'importe qui se produire en public. Cela signifiait donc qu'il était, pour lors, rentré dans le rang.



Lorsque le Groupe de Danse Kresala fut créé, en 1968, j'y fis mon entrée en tant que danseur grâce à Gene Yurre. Je m'entêtais à vouloir danser et Gene – qui par la suite deviendra mon maître, mon copain, mon ami et mon voisin - pensait que je devais jouer du txistu. Il était du même avis que ma mère. Parce que j'étais le petit-fils d'Isidro, que je m'appelais Ansorena, que je jouais ou que je savais me servir d'un txistu et par-dessus tout... parce qu'il manquait de txistulari dans le groupe. Gene, après avoir obtenu ce qu'il voulait, évoquait souvent ses moments vécus avec Polentzi et me le citait en exemple. Mais moi, étant fait d'un autre bois, je préférais jouer dans la douce ambiance d'un groupe.

Un jour, après avoir opté pour le txistu, je me mis à me produire dans tous les concerts et alardes qui se présentaient. C'était généralement l'occasion pour les txistulari de jouer seul ou en groupe l'après-midi. Souvent, Polentzi était la référence et le modèle sur lequel on se basait pour juger ceux qui se produisaient. On y entendait de tout. Il comptait de nombreux admirateurs qu'il avait conquis par ses enregistrements.

Il avait aussi des contradicteurs qui disaient que les enregistrements étaient trafiqués. Je garde encore en mémoire les propos d'un vieux txistulari lors d'un alarde d'après repas à Andoain, rapportant qu'il avait réussi à prouver en accompagnant l'enregistrement de l'un de ses disques que son txistu que celui-ci avait été amplifié. Il est bien entendu qu'en amplifiant le son, le ton était un peu plus aigu et que c'était là que le bât blessait.

Comme tout gamin, je rentraï chez moi et je me mis à essayer d'en faire de même. Et c'était vrai. Encore sous le choc, je racontai tout cela à mon grand-père. Sa réponse fut la suivante: "Mais, qu'est-ce que ça peut faire ? C'est un disque. Est-ce qu'on l'entend bien ?". Isidro, comme il le fit pour Polentzi me fit rentrer dans le rang. Car une représentation en direct n'est pas la même chose qu'un enregistrement. Chacun a ses propres lois et règles. Et comme on utilise tel microphone ou tel égalizer, il faut savoir utiliser d'autres moyens pour réaliser un bon produit.

Nous ne connaissons rien à l'époque des techniques d'enregistrement. Nous avons pu, par la suite, nous y initier. Et, aujourd'hui, nous nous rendons compte que Polentzi, grâce à ses enregistrements (ainsi qu'à toutes ses prestations à travers le monde) a rendu un énorme service au txistu, aux txistulari et aux basques en général. Dans notre situation d'oppression, il nous avait aidé à renforcer une petite certitude, il nous avait prouvé que le txistu pouvait susciter du plaisir. Parce qu'il avait produit de très bons enregistrements entre autres. Pas seulement pour lui. Le son du txistu restait naturel, propre, puissant, sans impuretés, avec un niveau de réverbération équilibré. Il nous a été donné par la suite d'entendre nombre de mauvais enregistrements pourtant effectués avec du matériel bien meilleur. Là aussi, il avait vu juste.

Cette époque n'était pas facile pour les basques et les morceaux de Polentzi nous redonnaient une certaine fierté. "Nous aussi nous sommes quelque chose", nous murmurait sa si belle chanson. Le son ferme de son txistu nous aidait à ressentir de la joie et de la dignité en ces années si dures.



Isidro Ansorena était déjà vieux et son état de santé était plus fragile en décembre 1972. Cependant, il avait tenu à se rendre de Saint Sébastien au théâtre du Coliseo Albia de Bilbao afin d'y assister à un concert bien spécial. Cela valait le coup. Tout d'abord parce que la partie principale du spectacle était réservée au Chœur Easo de Saint Sébastien dirigé par son fils Iñaki, notre père. Aussi parce que c'était un concert de soutien à l'école de l'orphelinat La Casilla du Mont Umbe, dont la mère supérieure n'était autre que sa fille Prantxiska Martiña, Sor Martina. Mais en plus, il était prévu qu'il y ait des intermèdes entre certaines chansons du Chœur Easo et que ceux-ci soient assurés par Polentzi Gezala.

Cependant, ce concert réserva plus d'une surprise. Polentzi voulut dédier ce concert à celui qui fut son maître. Il joua un morceau que très peu de monde connaissait spécialement à cet effet: un kontrapas du nom de "Azaroko lore maite bat". Un beau morceau court que notre grand-père Isidro composa dans sa jeunesse en l'honneur de celle qui fut sa femme Kontxa.

Polentzi reçut de nombreux applaudissements ce jour-là. À la fin de la représentation, il reçut une récompense bien plus importante que tous les applaudissements du public lorsqu'il se rendit au balcon où se trouvait Isidro Ansorena afin de l'embrasser: sur les joues de celui-ci coulaient encore des larmes d'émotion.

J'ai lu au cours de cette biographie de Joxe Juan Ugalde les paroles que Polentzi répétait souvent: "Si je disais tout ce que j'ai en dedans". J'ignore s'il a tout dit. Mais son txistu nous a transmis des messages forts et savoureux. Car sa musique parvenait à exprimer ce que les mots n'arrivent pas à dire.



Bere txistua.



atarikoa

“Pariseko publikoa oso zorrotza da. Han erdipurdi egindakoak ez du balio. Ager-tokira eramaten dena, ona izan behar du”. Hortik aurrera, borborka kontatzen zituen bere ibilbide artistikoko pasadizo eta gertaerarik azpimarragarrienak. Eta bere bizitza, gora eta behera, azkar batean igaro zitekeen eskailera bailitzan. Haurtzaroko eta gaztaroko kontu erdi ahantziak ekartzen zituen elkarrizketara, zenbaitetan bakkarrizketara, Lezoko Kale Nagusiko “Alai Etxe”-ko egongela txiki hartan. Dena zen mintzagai: hormako argazki zaharra, halako herritarren xelebrekeria, soldadutzako urte luzeak, munduan zehar bizi izandako ñabardurarik txikiena edota eskenatokietan bizi izandako unerik sakonena. “Gogoratzen al duzu Parisa eraman zintudanekoa?” esaten zidan elkartzen ginen aldiro.

Hamabost bat urte nituen. Polentzi eta Anie emaztea Lezora etortzekoak ziren, udako oporretan. Aurrez, eskola amaitu orduko, Jon Mirena eta Pierre semeak Lezozon ziren, Miren eta Luke izeben etxean euskara ikasi eta indartzeko. Mirenek ilobei Aurrekua erakusteko eskatu zidan, gurasoak etortzean dantzari aurki zitzaten. Eta hala izan zen. Bizpahiru astetara, haur dantzarien gurasoak Lezora iritsi orduko, Aurrekua jotzeko eskatu zion Mirenek Polentzi anaiari. Bat-batean, aita txistua jotzen, semeak dantzan, ama eta izebak negar-malkotan begira...

Esker onez, Polentzik Parisa eraman ninduen. Sartrouville antzokian dantzatu ahal izan nuen, Robert Celhayk sortu eta gidatzen zuen Izarra izeneko dantza talde paristarren emankizunean. Eta bai: Pariseko publikoa oso zorrotza eta,aldi berean, esker onekoa dela frogatu ahal izan nuen. Txalo zaparrada amaigabea izan zen, euskal estanpa oinarri zuten opereta-dantzaldiaren bukaeran; inoiz dantza-saio baten ondoren entzun dudatan txaloaldirik luzeena. Polentziren txistuaren doinuek eta dantzarien urratsek liluratuta utzi zuten “publiko zorrotza”. Gozoa izan zen antzoki hartan aurkitu nuena, eta baita 97 rue Orfila 75020 Paris helbideko etxean egin nuen lauzpabost eguneko egonaldia ere. Parisen, baina etxean nintzen.

Gisa horretako bizipenak berritzea zuen gustuko Polentzik, Miren eta Luke arriben ondoan; eta, beti, Anie emaztearen laguntzaz. Izan ere, oroitzapenetan galtzen zen horietakoa zen Lezoko txistularia. Hizketaldian, emazteak ekartzen zuen maiz errealitatearen sendara. “Estabas diciendo...”, “no, eso no fue así”...

Gertaera eta pasadizo harrigarriak kontatzen zituen Polentzik: Floridatik Las Vegasera, bera entzutera propio joan zen Gaztelu lezoarrarena; Washingtonen kontzertua amaituta, ikusle batek txistuaren truke txeke zuria eskaini zionekoa (“bihotzeko gauzek ez dute preziorik” izan zen erantzuna); Brigitte Bardot-en film batean lorategian txistua jotzen parte hartu zuenekoa; Tunezko Habib Burguiba presidentea ezagutu zuenekoa... Munduan barrena izandako esperientziez gain, ordea, hitzetik hortzera aipatzen zituen etxeakoak eta herrikoak. Sarritan jotzen zuen haurtzaroko jostaketetara.

Berarekin izandako solasaldi guztietan Paris, Lezo, lezoarrak, txistua, bidaiak eta aberria azaltzen ziren. Aparteko garrantzia ematen zion munduan barrena ibili izanari, Paris hiriaz maiteminduta zegoen, txistua bere bihotza bezain garrantzitsua zela adierazten zuen behin eta berriz... eta aberria. Polentzik askotan aipatzen zuen Euskal Herriaren geroari buruzko kezka, beti, hori bai, atzean, Gerra garaian bizi izandakoarekin nahastuz. Harro zegoen familia abertzalean sortu izanaz. Harro zegoen nazionalista izateaz. Ez horren harro euskal abertzaleen arteko zatiketa eta ezinikusiaz. Aberriaz mintzo zenean, abertzaleen arteko zatiketak eragindako mina adierazten zuen. Eta berehala, Parisen, Joxe Antonio Agirre lehendakariarekin izandako hartu-emana ekartzen zuen solasera, garai haietako batasuna nostalgiaz gogoratuz.

Behin baino gehiagotan aurkitu dut esan nahi eta ezinaren arteko atakan. “Barruan ditudan guztiak esango banitu!” entzun izan genion behin baino gehiagotan. Askotan pentsatu izan dut Lezo moduko herri txiki batetik mundura irtendako gaztearen barruan zer-nolako bizipen-magma ez ote zen egosi; zenbat esanahi ez ote zen irribarre soil batean aienatu, ezabatu.

Orain Polentzi Gezalaren ausentzia da hizketan ari zaiguna. Izan ere, ausentzia batzuk etengabeko presentzia bilakatzen dira. Eta hori da euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez, nahasian, azkar eta kolpeka bezala, hitz egiten zuen lagun handiak hehrentzian utzi digun mintzo isil ezina.

Joxe Juan Ugalde Ordoki

introducción

“El público de París es muy exigente. Allí las cosas no se pueden dejar a medias. Lo que se lleve al escenario tiene que ser bueno”. Partiendo de este punto contaba a borbotones las anécdotas y los sucesos más remarcables de su recorrido artístico. Y su vida, hacia arriba y hacia abajo, se convertía en una escalera fácil de transitar. Durante el coloquio, convertido en ocasiones en soliloquio, en aquel pequeño salón de la casa “Alai Etxe” de la Calle Mayor, le sobrevenían los recuerdos medio olvidados de su infancia y de su juventud. Todo era tema de conversación: la antigua foto colgada en la pared, las anécdotas del pueblo, los largos años en el servicio militar, el más minucioso detalle de sus andaduras por el mundo o los momentos más emotivos vividos sobre el escenario. “¿Te acuerdas de aquella vez que te llevé a París?” me solía preguntar cada vez que nos juntábamos.

Yo tenía unos quince años. Polentzi y Annie habían pensado en venir a Lezo durante las vacaciones de verano. Jon Mirena y Pierre habían venido al pueblo nada más terminar el curso escolar para aprender y reforzar el euskera en casa de las tías Miren y Luke. Miren me pidió que les enseñara a bailar el Aurrresku para que cuando llegaran los padres les sorprendieran bailando. Y así fue. En un par de semanas, en cuanto los padres de los pequeños bailarines llegaron a Lezo, Miren le pidió a su hermano Polentzi que tocara el Aurrresku. De pronto el padre tocaba el txistu, los hijos bailaban, la madre y las tías miraban deshaciéndose en lágrimas...

Como agradecimiento, Polentzi me llevó a París. Tuve la oportunidad de bailar en el teatro Sartrouville, en la actuación del grupo de danza Izarra de París, creado y dirigido por Robert Celhay. Y efectivamente: comprobé que el público de París era exigente pero a la vez muy agradecido. Al final del baile opereta que llevaba la estampa vasca, los aplausos fueron interminables; fue el aplauso más largo que jamás he presenciado al final de una actuación de baile. Las melodías del txistu de Polentzi y los pasos de los bailarines fascinaron al “exigente público”. Lo que encontré en aquel teatro fue agradable, al igual que la estancia de cuatro o cinco días en el domicilio 97 rue Orfila 75020 Paris. Aun estando en París, me sentía en casa.

Polentzi disfrutaba rememorando estas vivencias en compañía de las hermanas Miren y Luke, y siempre con la ayuda de su mujer Annie. Ciertamente, el txistulari de Lezo era de los que se perdía en los recuerdos. Durante la conversación, Annie lo traía a menudo a la senda de la realidad. “Estabas diciendo...”, “no, eso no fue así”...

Los sucesos y las anécdotas que contaba Polentzi eran increíbles: la historia del lezoarra Gaztelu que se trasladó desde Florida hasta Las Vegas sólo para escucharlo; cómo un espectador le ofreció un cheque en blanco a cambio de su txistu después de un concierto en Washington (la respuesta fue “lo querido no tienen precio”); aquella vez en el que participó en una película de Brigitte Bardot tocando el txistu en el jardín; el día en el que conoció al presidente de Túnez Habib Burguiba y un largo etcétera. Sin embargo, además de las experiencias vividas por el mundo, mencionaba sin cesar a los de casa y a los del pueblo y volvía con frecuencia a los juegos de su infancia.

En todas las conversaciones que mantuvimos, aparecían París, Lezo, los lezoarraz, el txistu, los viajes y la patria. Le daba especial importancia al hecho de haber viajado por el mundo, estaba enamorado de la ciudad de París, mostraba una y otra vez que el txistu era tan importante como su propio corazón... y la patria. Polentzi mencionaba a menudo su desasosiego por el futuro de Euskal Herria; eso sí, siempre entremezclado con lo vivido durante la Guerra. Se sentía orgulloso de pertenecer a una familia nacionalista, pero no tanto de la división y de la enemistad entre los nacionalistas vascos. Cuando hablaba de la patria mostraba el dolor que le causaba esta división. Y acto seguido, mencionaba la relación que tuvo con el lendakari Joxe Antioio Agirre en París, recordando con nostalgia la unión de aquella época.

Más de una vez lo sorprendí en el trance de querer y no poder hablar, y en más de una ocasión le hemos escuchado decir “¡Si dijera todo lo que llevo dentro!”. He pensado a menudo en el cúmulo de vivencias que guardaría para sí aquel joven que salía al mundo de un pueblo tan pequeño como Lezo; cuántas palabras se habrían ahuyentado y desvanecido con una mera sonrisa.

Es la ausencia de Polentzi Gezala la que hoy nos habla. La verdad es que algunas ausencias se convierten en continua presencia. Esta es la herencia que nos ha dejado el gran amigo que hablaba rápido y como a golpes, entremezclando el euskera, el castellano y el francés: una voz imposible de silenciar.

Joxe Juan Ugalde Ordoki

introduction

“Le public de Paris est très exigeant. Là-bas, il n’y a aucune indulgence pour l’à-peu-près. Une prestation publique se doit d’être réussie”. À partir de là, il se mettait à égrener les moments et les événements les plus significatifs de son parcours. Comme si sa vie s’était déroulée comme un escalier à marche rapide. Au cours de ces dialogues, qui devenaient parfois des monologues, il rapportait des histoires à moitié oubliées de son enfance et de sa jeunesse, dans ce petit salon d’“Alai Etxe”* dans la rue principale de Lezo. Tout était prétexte à discussion: une vieille photo sur le mur, telle anecdote arrivée dans la ville, les longues années passées au service militaire, le plus petit détail sur ses voyages à travers le monde ou l’intensité des moments vécus sur scène. “Tu te souviens de la fois où je t’avais emmené à Paris ?” me demandait-il chaque fois que nous nous croisions.*

Je devais avoir une quinzaine d’années. Polentzi devait venir à Lezo accompagné de sa femme pour les vacances d’été. Ils venaient rejoindre leurs fils Jon Mirena et Pierre, arrivés plus tôt dès la fin des classes chez leurs tantes Miren et Luke. Pour y apprendre la langue basque et la pratiquer. Miren m’avait demandé de leur apprendre l’Aurresku (danse d’honneur) à fin qu’ils sachent le danser pour l’arrivée de leurs parents. Et c’est ce que nous fîmes. Au bout de deux ou trois semaines, à l’arrivée des parents, Miren demanda à son frère Polentzi de jouer l’Aurresku. Il prit immédiatement son txistu, se mit à jouer. Lorsque les enfants se mirent à danser, la mère et la tante ne purent retenir leurs larmes...

Polentzi m’amena à Paris. J’avais ainsi pu danser au théâtre de Sartrouville, lors de la représentation du groupe de danse parisien du nom de Izarra créé et dirigé par Robert Celhay. Et oui: j’ai pu ainsi vérifier que le public de paris était très exigeant mais savait, dans le même temps, se montrer généreux. Ce fut un tonnerre incessant d’applaudissements qui se déchâna à la fin de cette opérette d’inspiration basque ; la plus longue salve d’applaudissements qu’il m’ait jamais été donné d’entendre. Le son du txistu de Polentzi et les pas exécutés par les danseurs enchantèrent ce “public exigeant”. Je garde un grand souvenir de ce que j’ai pu vivre dans ce théâtre, ainsi que des quelques jours passés dans cette maison du 97 rue Orfila 75020 Paris. J’étais à Paris, mais j’étais chez moi.

Polentzi adorait renouveler de telles expériences au côté de ses sœurs Miren et Luke; et, avec la complicité de son épouse Annie. Cependant, le txistulari de Lezo faisait partie de cette catégorie de gens qui se perdent facilement dans leurs souvenirs. Lorsqu'il se mettait à raconter des anecdotes, c'était souvent sa femme qui le recadrait un peu. "Estabas diciendo...", "no, eso no fue así"... ("Tu étais entrain de dire...", "non, ce n'était pas tout à fait ça...")

Polentzi était plein d'histoires et d'anecdotes extraordinaires: celle de Gaztelu, de Lezo, qui s'était rendu de la Floride à Las Vegas spécialement pour l'écouter; celle de cet auditeur de Washington qui lui offrit un chèque en blanc contre son txistu ("les choses du cœur n'ont pas de prix" se vit-il répondre); celle du film avec Brigitte Bardot où il jouait du txistu dans un jardin; la fois où il fit la connaissance du président de Tunisie Habib Bourguiba... En plus des expériences vécues à travers le monde, il évoquait très facilement ses proches et villageois(e)s. Il revenait souvent à ses jeux d'enfance.

Au cours de toutes nos discussions, Paris, Lezo, les gens de Lezo, le txistu, les voyages et la patrie revenaient continuellement. Les voyages à travers le monde avaient une grande importance à ses yeux, il était amoureux de Paris, il répétait sans cesse que son txistu était aussi important que son cœur... et la patrie. Polentzi faisait souvent part de ses inquiétudes quant à l'avenir du Pays Basque, en faisant toujours référence au passé, à ce qu'il vécut durant la guerre. Il était fier d'être né dans une famille abertzale (nationaliste basque). Il était fier d'être nationaliste. Pas si fier des clivages et des conflits entre abertzale. Lorsqu'il parlait de la patrie, c'était cette douleur engendrée par ces clivages qu'il exprimait. Et, très vite, c'est la relation qu'il a entretenu avec le président du Gouvernement Basque, Joxe Antonio Agirre qui revenait dans la discussion, avec une pointe de nostalgie pour cette période où l'unité prévalait.

En plusieurs occasions, il ne put vraiment exprimer tout ce qu'il aurait voulu. "Si j'exprimais tout ce que j'ai en moi !" avons-nous pu entendre maintes fois. J'ai pensé souvent, à l'immense expérience acquise par ce jeune d'un petit village comme Lezo parti parcourir le monde ; combien de choses ont-elles été évacuées, effacées derrière un seul de ces sourires.

Maintenant c'est de l'absence de Polentzi Gezala dont nous parlons. Car certaines absences deviennent des présences perpétuelles. Et c'est ainsi que, mêlant l'euskara, le français et l'espagnol, vite et comme par à-coups, notre grand ami nous laissa en héritage cette parole qui ne s'éteindra jamais.

Joxe Juan Ugalde Ordoki

Txistulariaren begirada noragabea
antzinako ametsetan amildua
eguzki irripek dagite galduago
itxaropen eta oinazezko oihanean.
Hatz zimur lirainei
dardarez darie
askatasun ereserki
ereintzaren igalia, solemneki.
Ttunttunaren altzotik errepikan
bortitz da durundia ilki
oihartzunaren irrintzia jaurtiki.
Eztarria arnasbeharka
bihotza hasperenka
ziztuak hormatan punpaka.
Txistu noten erraietan
Iraganaren mintzoa
zein den lerden,
zein den eder...
hots urrundari, mezu bizi...
doinu bihotzeko!
Ohore zuri
Gezalatar Polentzi.

*Le regard lointain du txistulari
imprégné de rêves d'antan
paraît encore plus perdu dans les rayons du soleil
dans la forêt de l'espoir et de la tourmente
De ses doigts ridés et élégants
s'écoule en tremblant
l'hymne de la liberté
le fruit des semailles, avec solennité
La résonance sort durement
du cœur même du ttunttun
émettant le jaillissement de l'écho.
La gorge manquant de souffle,
le cœur soupirant
les sons renvoyés par les murs.
Au plus profond des notes de txistu
le langage du passé
est si beau
est si élégant...
musique lointaine, message vivant
musique du cœur !
Honneur à vous
Gezalatar Polentzi*

POLENTZI GEZALA

TXISTUAZ MUNDUA LILURATU DUEN LEZOARRA

Un lezoarra que ha seducido al mundo con el txistu

L'enfant de Lezo qui a conquis le monde grâce à son txistu



HAURTZAROA, ERBESTEA ETA GAZTAROA

Polentzi Gezala Sargarzazu Lezon jaio zen, 1919ko azaroaren 20an. Gurasoak lezoarrak ziren. Aita, Pontxio, aduana agentea, Gurutze Santuaren Plazako Gure Borda etxekoa; ama, Barbara, etxekoandrea, Kabitte Haundi baserrikoa. Aitaren aldetiko aitona, Regino, 30 urtean izan zen Lezoko alkate; baita Polentziren aita ere, hainbat urtean. Bederatzi anaia-arreba ziren. Bera zortzigarrena. Zaharrenetik gazteenera: Irene, Regino, Luis, Luke, Miren, Elixabete, Koldobike, Polentzi eta Xabin. Kale Nagusian bizi ziren.



Ama Barbara eta Luke.

INFANCIA, EXILIO Y JUVENTUD

Polentzi Gezala Sargarzazu nació en Lezo el 20 de noviembre de 1919. Sus padres eran originarios de Lezo. Su padre Pontxio, agente de aduana, provenía de la casa Gure Borda de la plaza del Santo Cristo; y Bárbara, madre de familia, de Kabitte Haundi. Su abuelo paterno, Regino, fue alcalde de Lezo durante 30 años; y también lo fue su hijo Pontxio durante algunos años. Fue el octavo de nueve hermanos: Irene, Regino, Luis, Luke, Miren, Elixabete, Koldobike, Polentzi y Xabin. Vivían en la Calle Mayor.

Durante su infancia asistió a las Escuelas Nacionales del pueblo. Polentzi solía recordar aquella escuela totalmente castellana en la que no se permitía pronunciar ni una sola palabra en euskera. En ella realizó los estudios primarios. Junto con la escuela, aprender la doctrina era una de las actividades más importante para los niños de la época. Los sacerdotes Don Luis y Don David Esnal fueron sus educadores en la catequesis.

En aquel entonces los niños de Lezo jugaban en la calle. Polentzi contaba a menudo cómo jugaban en la casa Gure Borda de la plaza, las anécdotas de la escuela de Goiko Plaza y de la catequesis, cómo recogían piñas en Jaizkibel, cómo solían ir a por quisquillas y almejas al puerto... En el grupo de amigos se juntaban, entre otros, Felix Unzain, Joan Bautista Berasarte, Joxe Juan de *Gure Borda*, Bittor Irazu, Eli Salaberria y Joxe Miguel Treku. Polentzi era un niño de gran iniciativa; ya desde muy joven se dedicaba a enseñar a nadar a los niños del pueblo agarrándoles de la barbilla.

Como la mayoría de las familias de la época, los Gezala comenzaban el día muy temprano. Las chicas y Polentzi cantaban mientras hacían las tareas del hogar. Se unían a ese mismo canto algunas vecinas de tres o cuatro casas de alrededor, como Manoli Jaka o las Pikabea, creando un coro mientras sacudían los trapos, pasaban la escoba o tendían la ropa. En aquella época la Calle Mayor de Lezo era como una gran familia, todos se conocían. En ese ambiente fa-

L'ENFANCE, L'EXIL ET L'ADOLESCENCE

Polentzi Gezala Sargarzazu naquit à Lezo, le 20 novembre 1919. Son père, Pontxio, agent des douanes, était né à la maison Gure Borda, sur la place Gurutze Santua; sa mère, Barbara, mère au foyer venait de la ferme Kabitte Haundi. Son grand-père paternel, Regino, occupa, 30 ans plus tôt, les fonctions de maire de Lezo; le père de Polentzi le fut aussi durant plusieurs années. Il était le huitième des neufs enfants de la famille. Du plus âgé au plus jeune: Irene, Regino, Luis, Luke, Miren, Elixabete, Koldobike, Polentzi et Xabin. Ils vivaient dans la Rue Principale.

Il était scolarisé à l'école d'en Haut, l'école nationale. On n'y pratiquait que le castillan, il y était interdit de prononcer le moindre mot en basque, ainsi que nous l'a rapporté à maintes reprises Polentzi. Il y suivit un enseignement élémentaire. Au même titre que l'école, le catéchisme était l'une des principales activités des enfants. Il y reçut les préceptes des prêtres Don Luis et Don David Esnal.

Dans ces années-là, les enfants jouaient dans la rue. Polentzi racontait souvent comment ils s'amusaient à la maison Gure Borda sur la Place Gurutze Santua de Lezo, comment il allait à l'École du Haut de Lezo où l'on ne parlait que castillan, les histoires du catéchisme, la cueillette des pommes de pin sur le jaizkibel, la pêche aux crevettes et coquillages sur le quai proche de la maison... Dans sa bande de copains, on retrouvait entre autres, Felix Unzain, Joan Bautista Berasarte, Joxe Juan de Gure Borda, Bittor Irazu, Eli Salaberria et Joxe Miguel Treku. Polentzi était un enfant plein d'initiatives; alors qu'il était tout jeune, il apprenait à nager aux enfants du village, en les tenant par le menton

Comme dans la plupart des foyers, la famille Gezala se mettait en branle tôt le matin. Les filles et Polentzi chantaient en travaillant. Et des voix venues des maisons alentour reprenaient ces mêmes chants, celles de Manoli Jaka ou des Pikabea, créant ainsi une chorale de gens qui faisaient la poussière, passaient le balai ou étendaient le linge. Il faut dire qu'à l'époque, la Rue Principale

Haurtzaroan Goiko Eskolara joan zen, eskola nazionaletara. Eskola erabat eralduna zen, ezin zuten hitz bat bera ere euskaraz egin, Polentzik berak behin baino gehiagotan gogorarazten zuenez. Eskolan oinarriko ikasketak egin zituen. Eskolarekin batera, Dotrina zen garaiko haurren egiteko nagusietakoa. Dotrinan Don Luis eta Don David Esnal apaizak izan zituen hezitzaile.

Urte haietan kalean jolasten zuten Lezoko haurrek. Askotan kontaktzen zuten Polentzik Lezoko Gurutze Santuaren Plazako Gure Borda etxean nola aritzen ziren, Lezoko Goiko Eskola erabat eraldunera nola joaten zen, dotrinako kontuak, Jaizkibelgo pinaburu biltzeak, etxe ondoko kaian izkiratara eta almejatarara nola joaten ziren... Lagun taldean, beste batzuen artean, Felix Unzain, Joan Bautista Berasarte, *Gure Borda*-ko Joxe Juan, Bittor Irazu, Eli Salaberria eta Joxe Miguel Treku elkartzten ziren. Polentzi ekimen handiko haurra zen; oso gaztetxo zela, herriko haurrei igeri egiten irakasten aritzen zen, kokotxetik helduta.

Garaiko etxe gehienetan bezala, Gezala familia goizean goiz mugitzen zen. Neskak eta Polentzi kantari aritzen ziren etxeke lanak egin bitartean. Eta kantu berari inguruko etxeetako bizilagun kantariak lotzen zitzaizkion, Manoli Jaka edota Pikabeatarrak, hiruzpalau etxetan, zapiak astintzen, erratza pasatzen edota arropak zabaltzen ari zirenen artean abesbatza sortuz. Izan ere, urte haietan, Lezoko Kale Nagusia familia handi baten parekoa zen; denak ezagunak. Eta auzo giro horretan, Gezalatarren etxeke neskak eta Polentzi maiz aritzen ziren balkoian josten, askotan, beraientzat eta auzokideentzat kantari.

Irene eta Luke arrebak jostunak ziren. Beste enkargu batzuen artean, Jaunartzeke arropak josten zituzten, eta lanbidea herriko beste emakume batzuei erakutsi zieten. Beren eskuetatik pasatutakoak dira gerora jostun onak izandako herritarrek. Jostun giro hartan, Polentzi berak josten ikasi zuen.



Gurasoak Miren eta Lukerekin



Aita Pontxio



Lezoko pilotariak. Beheko ilaran, ezkerretik bigarrena.

miliar, Polentzi y sus hermanas solían coser en el balcón, cantando para ellos mismos y para los vecinos.

Las hermanas Irene y Luke eran costureras. Entre otras cosas, cosían por encargo trajes de comunión y enseñaron el oficio a otras mujeres del pueblo que más tarde serían buenas costureras. En este ambiente de costura, Polentzi también aprendió a coser.


La familia era muy nacionalista. Por ese motivo, el 6 de septiembre de 1936, comenzada ya la Guerra Civil, tuvieron que huir. Fue el padre quien les inculcó el nacionalismo. Pontxio Gezala solía ir al Batzoki de Errenteria antes de que en 1931 inauguraran el de Lezo. Polentzi contaba que su padre se hizo nacionalista a raíz de la lectura del libro *La Nación Vasca* que recibió de Elias Salaberria. Al parecer, cuando los requetés entraron en la plaza de Lezo, preguntaron por Pontxio y su familia, y registraron de arriba a abajo la casa de la Calle Mayor y su oficina de trabajo de Pasaia.

Durante la huida, la familia recorrió Dornostia, Soralueze, Bilbao, Santzurtzi y Santo-

ressemblait à une grande famille; tout le monde se connaissait. Et dans cette ambiance conviviale, les filles de la maison des Gezala et Polentzi chantaient souvent sur le balcon, tout en se livrant à des travaux de couture pour eux-mêmes et pour les voisins.

Ses sœurs Irene et Luke étaient couturières. Entre autres travaux, elles étaient chargées de coudre les tenues de communion. Elles enseignaient aussi la couture à d'autres femmes du village. Des habitantes qui, plus tard, devinrent de bonnes couturières ont appris avec elles.

*C'était une famille très abertzale. C'est pourquoi elle dut fuir le 6 septembre 1936, lors de la Guerre Civile. Le père transmet son patriotisme à toute la famille. Comme il n'y avait pas de batzoki (bar-restaurant nationaliste) à Lezo, Pontxio Gezala se rendait à celui de Renteria, jusqu'à ce que l'on en inaugure un à Lezo en 1931. Polentzi nous a révélé que son père devint abertzale à la lecture du livre *La Nación Vasca* (*La Nation Basque*) que lui avait donné Elias Salaberria. Lorsque les "requetes" (combattants volontaires franquistes) pénétrèrent sur la place de Lezo, ils*



Eskolako kide eta maisuarekin. Beheko bigarren ilaran, eskuinetik hirugarrena.



Jaunartze egunean. Behean, ezkerretik laugarrena.



Herriko festetan karrozaren ondoan

